BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2697

AGINDUA, 2012ko apirilaren 13koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación del Comercio de Bizkaia» fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación del Comercio de Bizkaia» fundazioaren eraketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko otsailaren 29an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean sartu zen: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan «Fundación del Comercio de Bizkaia» fundazioa inskribatzeko eskari bat. Fundazio hori, bestalde, Bizkaiko Merkataritzarako Enpresari Kontseilua (Cecobi) federazioak sortutakoa da. Espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion eskabideari.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen, fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman du 2012ko martxoaren 23an.

Hirugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Fundazioaren helburua da jarduerak sustatzea, gauzatzea, laguntzea eta finantzatzea, honako xede orokor hauek erdiesteko:

a) Ekimen libreko sistemaren eta merkatu-ekonomiaren defentsa eta sustapena.

b) Enpresa-bokazioak sustatzea, betiere enpresa berrien sorrera eta enpresa txiki eta ertainen garapena bultzatzeko asmoz.

c) Sustapen-lana egitea, enpresaburuak eta enpresa-elkarteak nazioartean zabaldu, eta nazioarteko elkarte eta enpresaburuekin lankidetzan aritu daitezen, bai eta, bereziki, lankidetza-erakunde alde aniztunekin harreman-bideak ezarri ditzaten ere.

d) Enpresei eta elkarteei laguntza ematea, estatuko edo nazioarteko garapen-lankidetzako proiektuetan parte hartu dezaten. Egindako lana ere aitortu egingo zaie, horretarako entregatutako goraipamen bidez.

e) Topaketak sustatzea, hain zuzen ere, unean uneko errealitateen eta errealitate ekonomiko, sozial eta kulturalen azterketan eta aurreikuspenetan sakontzeko; era berean, bizi-baldintzak hobetze aldera, azterlanak, aholkularitza-lana eta programa integralen kudeaketa egin eta sustatuko dira, betiere kulturen arteko errespetua zainduta.

f) Bizkaiko garapen ekonomikoaren alde egitea, egoera sozial bidezkoago bat lortzeko.

g) Hedabideetan eta iritzi publikoaren aurrean, merkataritza-arloko enpresaburuen irudia defendatzea.

h) Merkataritza-enpresek informazio-, prestakuntza-, ikerketa- eta hobekuntza-arloan dituzten beharrizanak asetzea. Horretarako, halako enpresei eragiten dieten gai guztiak aztertu eta horien zabalkundea egingo da, bai eta enpresak sendotu eta teknologia garatu eta berritu ere.

i) Ekoizle eta kontsumitzailearen artean merkaturatze-bide egokienak ezartzeko lankidetzan aritzea eta, esparru horretan bertan ere, elkarteak, federazioak eta merkataritza-arloko beste edozein enpresa-antolaketa sustatu eta sortzea.

j) Antzeko izaera eta xedeak dituzten beste entitate batzuekin harremanak, loturak eta kolaborazioak ezarri, mantendu eta sustatzea.

Laugarrena.– Fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, fundazioaren helbidea hau izango da: Kale Nagusia 50, 5. solairua, Bilbao (Bizkaia). Fundazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen du, bereziki, bere jarduna.

Bosgarrena.– Hasierako dotazioa 31.000 eurokoa da. Kopuru hori ordaindu dela –agiri bidez– jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Seigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek doan beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

Kargua	Patronatuko kidea	Indarraldia
Lehendakaria	Pedro Campo Iglesias jauna, CECOBIko lehendakaria	Mugagabea
Lehendakariordeak	Antonio Monasterio Hernández jauna eta José Ramón Martínez Poyo jauna, CECOBIko lehendakariordeak	Mugagabea
Idazkaria	Julián Ruiz Gutierrez jauna, CECOBIko idazkaria	Mugagabea
Diruzaina	José Luis Loza Oteo jauna, CECOBIko diruzaina	Mugagabea
Bokala	Julia Diéguez andrea	Mugagabea
Bokala	Luis Rodriguez Martín jauna	Mugagabea
Bokala	Juan Manuel Vela Gato jauna	Mugagabea
Ohorezko lehendakaria	Jesús Medrano Grijalba jauna	Mugagabea

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren

3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikagarriak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Ikusirik aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako eraketa hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, egun honetan eta erregistro-zenbaki honekin: F-328, Bilboko (Bizkaia) «Fundación del Comercio de Bizkaia» fundazioaren eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere. Patronatu horretako kideak zazpigarren aurrekarian agertzen dira. Kideok espresuki onartu dituzte euren karguak, 2012ko otsailaren 8an, Bilboko Juan Ignacio Bustamante Esparza notarioaren aurrean (242 protokolo-zenbakia) egiletsitako eskritura publikoan xedatu bezala.

Bigarrena.– Fundazio hori, beraren helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 13a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.